



**ERABAKIA, ELGOIBARKO-SANLO EKT SASKIBALOI-TALDEAK
GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOAREN KIROL DIZIPLINAKO
BATZORDEAREN EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA
EZESTEN DUENA**

Espediente-zenbakia: 26/2015

AURREKARIAK

LEHENA.- 2015eko ekainaren 9an, ELGOIBARKO-SANLO EKT taldeak Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2015eko maiatzaren 21eko 9. zenbakiko epaiaren aurka jarritako errekurtsoa igorri zuen adierazitako Federazioak berak. Epai horren bidez, XXXXXXXXXXXXX entrenatzaile jauna kautelaz gaitasungabetu zen, Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araudiaren 64. artikulua aplikatuta.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu horren izapidetzea onartzea eta Gipuzkoako Eskubaloi Federazioari espedientea eskatzea erabaki zuen, eta espedientea 2015eko uztailaren 6an igorri zen adierazitako Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordeak landutako azalpen-txosten batekin batera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen esku-hartzea ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, 138.a) artikuluan –106.2 artikuluari dagokionez– eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, adierazitako Batzordea arautzen duenak, 3.a artikuluan xedatutakoan oinarrituta dago.



Era berean, aipatzekoa da uztailaren 22ko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan xedatzen duena; izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol arloko diziiplina-ahala erabiltzea, zeinek bere eskumen-esparruan: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

Aurreikuspen hori, halaber, 2014-2015 ikasturterako eskola-kiroleko jardueren programa onartzen duen ekainaren 20ko 03-059 /2014 Foru Aginduan jasota dago. Agindu horretan, "Lehiatzeko arau orokorrak" aztertzen dituen 2.2.2 idatz-zatiaren barruan ("E. Diziiplina Erregimena"), 125/2008 Dekretuaren 22. artikulua hitzak aipatzen dira. Zehazki, idatz-zati horrek honako hau dio hitzez hitz:

“E. Diziiplina-arauak.

125/2008 Dekretuak 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ondoko hauek izango dute diziiplina-arauak betearazteko ahalmena, beren eskumenaren barrutian:

- a) Lehen auzialdian, eskola-kirolaren organo eskudunek, parte-hartzaileei dagokienez.*
- b) Bigarren auzialdian, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak. (...)*

BIGARRENA.- Aztergai dugun gaia 2015eko maiatzaren 16an mutilen infantil kategorian Hotel Txarridun Elgoibar taldeak Bidasoa Irun “A” taldearen aurka jokatu zuen partidaren gertatutako gorabehera batzuekin du zerikusia.

Partida amaitu ondoren, ELGOIBARKO-SANLO taldeari taldeko entrenatzaileak ([REDACTED] jaunak) partida amaitzean sortutako istiluei buruzko informazioa eskatzea erabaki zuen Kirol Diziplinako Batzordeak 2015eko maiatzaren 21eko bileran (Akta-zenbakia: 35-2014/2015), eta 2015eko maiatzaren 27ra arteko epea eman zion informazioa aurkezteko.



Hala ere, Batzardeak 35. Akta hori aldatu zuen akats baten ondorioz. Izan ere, 9. zenbakiko epaian ez zen erantsi entrenatzailea kautelaz gaitasungabetu zela (aktaren zirriborroan, entrenatzaileari lau jardunaldiko zigorra ezartzea zegoen aurreikusita).

Elgoibar taldeak egindako alegazioen ondoren, Kirol Diziplinako Batzardeak 36-2014/2015 zenbakiko Akta idatzi zuen 2015eko maiatzaren 28ko bilkuran. Akta horretan, 16. epaia jaso zen, eta, haren arabera: "HILABETEKO gaitasungabetzea Elgoibarko Sanlo EKT taldeko entrenatzaile [REDACTED] jaunari, partidaren amaieran gertatutako istiluengatik (eskola-kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 12.1) eta 15.5.c) artikulua)". Honako hau gaineratzen da: "Ordaindu egin behar zaio gaitasungabetuta emandako denbora".

Talde errekurtsogileak ez zuen errekurtsorik jarri 2015eko maiatzaren 26ko azken erabaki horren aurka.

Elgoibarko eskubaloi-taldearen alegazioak taldearen ustez 35. Aktaren aldaketak dakarren irregulartasunari eta aldatutako aktan erabakitako entrenatzailearen kautelazko gaitasungabetzeari aurre egitera zuzenduta daude. Gaineratzen duenez, gaitasungabetze hori ezin zen egin Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araudiaren 64. artikulua babesean.

Talde errekurtsogilearen asmoa ondorioztatu ondoren, errekurtsua ezetsi egin behar da, dagoeneko ez baitu arrazoirik.

Izan ere, azpimarratu beharra dago errekurtsua kautelazko gaitasungabetzearen aurka jarri dela, ez, ordea, 2015eko maiatzaren 28ko behin betiko ebazpenaren aurka, eta ebazpen horretan lau partidako zigorra ezarri zitzaiola [REDACTED] entrenatzaileari, 2015eko maiatzaren 21eko



kautelazko zigorra barnean hartuta; hortaz, behin betiko zigorrak irmotasun handiagoa lortu du. Hori horrela izanik, eta zigor irmoa betetzeak entrenatzailea kautelaz zigortuta egon zen partidaren eta jardunaldian parte hartzeko ezintasuna zekarrela kontuan hartuta, ez dago kautelazko zigorrari buruzko erabakirik hartzerik.

Nolanahi ere, gogorarazi beharra dago kautelazko gaitasungabetzea Euskal Eskubaloi Federazioaren diziplina-araudian zein eskola-kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan (29.1 artikuluan) jasotako neurria dela, eta kasu honetan talde errekurtsogileari gertatutako istiluei buruzko alegazioak aurkezteko epe bat eman zitzaiolako hartu zela.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKI DU

ELGOIBARKO-SANLO EKT taldeak Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2015eko maiatzaren 21eko 9. epaiaren aurka jarritako errekurtsoa ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epategian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.



Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 22a.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA